



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2010-10-24**

VIII. URTEA 2.108. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Baserriko lanak bertatik bertara Aldabazahar baserrian

**TOLOSA** Produktu ekologikoak ekoizten dituzte Aldabako baserri honetan; elkarte bat ere osatzen dute

**LAGUNTZA** Almeriako Agustin Tena eta Arrasateko Eider Gutierrez boluntario bezala ari dira bertan lanean 4



Tolosaldeko ikasleek herenegun bildutako perretxikoak egon ziren ikusgai atzo Trianguloan. E. MAIZ

## HERRITARRAK MIKOLOGIARA GERTURATZEKO ASMOZ

**TOLOSA** Bukatu dira Kasinok antolatutako Mikologia Jardunaldiak; sukaldari ugari izan dira Trianguloan pintxoak prestatu eta banatzen 6



Hamargarren urtea da Rolleski Igoera antolatzen dutela. I. TERRADILLOS

## 65 parte-hartzaile Hernialdeko Rolleski Igoeran

**TOLOSA** Aldaz eta Lopez batetik, eta Goñi eta Garbeazabal bestetik, izan dira irabazleak 7

## Elkarretaratzeak Udalbiltza auziaren azken txanpan

**TOLOSA** Bihar ekingo diote berriz ere epaiketari; auzipetuak babesteko egin dituzte mobilizazioak 7

## 'Izarren argia'



### » Uzturretik

Iratxe Etxebeste

**A**spaldi itzalitako izarren argia da, askotan, gau beltzean

ikusten duguna. 36ko gerraren hondarrak sutan daude oraindik gurean, eta aiton-amonei ahapeka entzun dizkiegun istorio lazgarriak ari dira, pixkanaka-pixkanaka, azaleratzen.

*Izarren argia* filma horrexegatik ikusi nahi nuke: Gerra Zibila ezagutu ez zuen belaunaldi batek egin duelako memoria ariketa. Are gehiago: bi belaunaldi geroago ari gara hezurak hobietatik ateratzen, orain ari gara zerrenda

osatzen. Orain datoz kontakizun zinematografikoak ere. Mikel Rueda zuzendari gazteak historiaren perspektibarekin eta denborak ematen duen urruntasun xamurrekin gidatu omen ditu aktoreak.

Ez dakit zer daukan Barbara Goenagak, baina gogoko dut neska hori. Hezur haragizkoa izaten badaki, askotan azalekoa izan ohi den ikuskizunaren munduan. Aingeru aurpegi horrekin Satu-

rrarango emakumeen espetxeeko bizipen gogorak interpretatuko baditu, uste dut negar egingo dudala. Saturraranen espetxeratuta zeuden emakumeen seme-alabak kartzelatik atera, beren familiegandik urrundu eta sendi eskuindar eta katolikoetan hezi zituzten. Ama batentzat ba ote da oinaize handiagorik?

Ez da sentimentalismoa, ordea, nahiz eta isilarazi nahi gaituztenek hori uste. Ez da aspaldiko

gauzak nahasteko gogoia, amnesia interesatuek dioten bezala. Gure herriarekin faxismoak XX. mendean egin zuena ikaragarria izan zen eta orain ari gara, gezurra badirudi ere, lotsa itzel haren neurria ezagutzen

Zapalduak duintasuna mantendu zutelako, filma ere duina izango dela badakit. Lezio hori utzi ziguten hurrengoari Saturrarango emakumeek: ez lotsatu ondo egindakoaz.



## Atxiloketak salatzeako pankartak

**ANOETA** « Ostegun gauean izan ziren «gazte independentisten atxiloketak salatzeako» eta hilaren 30ean Donostian torturaren aurka burutuko den manifestazioara joateko deia egiten zuten pankartak jartzen ari zirela 3 herritar identifikatu zituztela salatu dute hainbat herritarrek. «Hala ere horrelako ekintzek ez gai-

tuzte geldituko. Horren adibide da ondoren pankarta gehiago jarri direla. Ertzaintzaren eta beste indar errepresiboen jazarpenek ez gaituzte geldiaraziko. Besar-kada bat bidali nahi genieke indarrez beraien etxeetatik urrunduak izan diren gazteei eta deia luzatzen dugu bidegabekeriaren aurrean kalera ateratzera». HITZA

## 29 urte Josetxo erail zutela

**IBARRA** « Ostegunean 29 urte bete ziren Guardia Zibilak Joxe Jauregi Altube, Josetxo, ibartarra erail zuela Pasaiako kontrol batean Andres Gogorza, Gogor, etakidearekin zihoala. Hori dela eta, ibartarrek «urtero legzbera gogoratzeko elkartu eta ekitaldi xumea» egin zuten bere senideekin batera. Ekitaldian «momentu politikoaren garrantzia azpimarratu zen, indarrak prozesu demokratikoa eraikitzen biltzeko deia egin zen eta Josetxo Estatuaren biktima izan zela aldarrikatu zen». HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Ibaia, ur korrontea baino gehiago



## » Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologoa

Zorionez, gurean ugariak dira ibaiak. Gure klima euritsuak urte guztian ur jario iraunkorrez hornitzen ditu ibai urak eta geure geografia malkartsuak, mota eta tamaina ezberdinetako ibaiak ematen die forma. Ibai hauek milioika urteetan egindako higadurak, geure eremu malkartsuetan oso urriak diren leku lauk sortu

bertako bizidun txikiak (intsektu larba, bakteria...) itzala egiten dioten zuhaitz eta zuhaixketatik errotzen den materia organikoaz elikatzen dira, ala nola, hostoak, egur zatiak... materia organiko hau ibaiaren elikadura katearen oinarria da, oso garrantzitsua

Garrantzitsua da beraz ibai 'osasuntsu' bat mantentzeko, ibai alboetako zuhaitz autoktonoen lerro zabal bat mantentzea. Ibaien bizidunak badaude, ibai-errotzen den materia organiko oro (hostoak, egurra eta geuk isurtzen dugun materia organiko guztia) segituan janakizango dira ibai bizidun txikiek eta ibaiak garbi mantenduko da.

Baina zorionez, bi igandean behin agertzen den biologo xume honek ez du idazten gure inguruko gauza politikak zein polit diren esateko, Tolosaldeko eta Leitzaaldeko herritarren kuriosi-

eta landaredia moztuz, honela ibai bizidunen janari iturria desagertzen da (hosto eta egur autoktonoak), bizidunak gosez hiltzen dira, ibai bere 'garbitzailerik' gabe utziz. Herra mailan oso borondate oneko ibai garbitzeko taldeak antolatzen diren, sarritan ibaiak egur hila kendu egiten da, itsusia egiten duela, baina egur hil honek almazen baten funtzioa egiten du negurako, udazkenean errotzen diren hostoak erretentuz eta negurako elikagaiak bermatuz.

Ibaientzako garai txarrenak amaitu direlakoan nago, ikusi besterik ez da Oria ibaian aurkitzen dugun bioaniztasuna. Alegiako parke alboko komunaren parean dute ubarroiak lotarako zuhaitz biluzi bat, 15 bat ubarroi egiten dute lo bertan. Hor inguruan ibiltzen da lertxun txiki zuria ere eta baita bere lehengusu Lertxun hauskara handi. Zer esanik ez Oria osoan dabilzan basa ahalte ugariak, uroilo bikoteak. Martin Arrantzalea eta aldizka lotsati agertzen den suge gorbata duna zentral elektrikoaren inguruan.

Geure Oria, Europako ibai kutsatuena izatetik paseatzeko ibai bat izatera ez da kasualitatez igaro, zaborra botatzeko leku izaera ematek baliabide natural izaera eman zaio. Izan ere, ibai bat bioaniztasun, aisialdi edo kirol gune bat izatea nahi bada, beraz ulertu eta errespetatzea beharrezkoa dugu. Baina, orain 'ongi' dagoela dirudien arren, asko falta zaio oraindik benetako ibai bat izateko: ibai burduntziak, altzadiak, ur satorra, bisoi europarra, eta abar luze bat.

Beraz, goazen ibaiaren alboetako landaredia berreskuratzeko, goazen ibaiari libre ibil dadin uztea eta prisma batzuen laguntzaz, ikus dezagun gertu daukagun altxor natural honen bizidun aniztasuna.

Esan dudan guzti hau gustatu bazaizue, gorroto banauzue edo gai zehatzen bat bereziki interesatzen bazaizue, idatzi lasai <http://bioaniztasunetik.blogspot.com> edo zergatik ez, esan nuzer aurre, zuen iritzia bereziki interesatzen baitzait!

# Perretxiko eguna izan zen atzokoa

**Azoka** » Perretxikoekin batera, fruta asko izan zen atzo mahaietan, errezil sagarrak, udareak eta intxaurrak, esate baterako.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alai eta argitsua hasi zen. Perretxiko astea zela eta, Trianguloa plazan Tolosako jatetxe batzuek hainbat postu jarri zituzten perretxiko pintxoekin, eta nola egin daitezkeen ere azaldu zuten. Bisitari asko erakarri zuten honek azokara.

## » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Ziklamena	5,50	-
Menta	1,50	6,00
Albahaka	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Zilantroa	1,50	-

## BERTAKO PRODUKTUAK

<b>Perretxikoak</b>		
Onddoa	20,00	-
Ziza horiak	18,00	-
Kuletroa	35,00	-
Mendiko angula	20,00	-
Nikaloa	20,00	-
Saltsa-perretxiko beltza	20,00	-
<b>Fruta</b>		
Kiwi	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Udarea	1,00	-

<b>Barazkiak (sorta)</b>		
Ziazierba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Apioa	0,50	-
Porrua	1,50	3,00

Eskaintza ere parekoa izan genuen, bai Zerkausian eta baita Berdura plazan ere.

Aipatzekoak Zerkausiko postuetan ikusitako udazkeneko barazkiak. Hauen artean udazkenean leka berriak ikusteak harritu gintuen, batez ere. Dirudienez, eguraldi epelak eta landareen kalitateak hauxe jartzen digute eskuan.

Fruta zerrenda ere oso oparoa izan zen. Errezil sagar asko, beste mota batzuetako sagarrak ere, udareak, mizpiradiak, intxaurrak, urrak edota gaztainak izan ziren nagusi mahai askotan.

## Barazkiak (kiloa)

Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	10,00	12,00
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarrun zuria	8,00	-
Babarruna lekatan	10,00	12,00
Rukula	12,00	-

## PRODUKTU EKOLOGIKOAK

<b>Fruta</b>		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

## Barazkiak (kiloa)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuri	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00

## Barazkiak (sorta)

Tipula	1,75	2,00
Erremolatxa	1,60	-

## Barazkiak (unitatea)

Letxuga	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Kukulua	1,00	-

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638-94 46 04 (Gurutze) edo 695-70 82 71 (Belen) telefono zenbakietara.

### BESTERIK

■ **Txakurkumeak opari.** Hilabete ko arratoi-artzai txakurkume emea eta 3 hilabete dituzten 3 arratoi-ehiztari txakurkume oparitzen ditut, eme bat eta bi ar. Interesatuek deitu 645-70 68 21 telefono zenbakira.



dituzte eta horri esker ibai ondoran herriak eta errepideak eraikitzeo aukera izan dugu, beraz asko dugu ibaiak eskertzeko.

Baina tituluak dioten bezala, ibai ez da ur korronte soil bat, askoz gehiago da. 'Plan Territorial Sectorial' famatuak dioenez, ibaiaren ur emaritik albo bietarako lurren 100 metroak ere ibai omen dira, beraz, legearen arabera, neu, eta agian zeu ere bai, ibaiaren mugen barruan bizi gara. Izan ere, ibaiaren zati oso garrantzitsua da bere alboetako lurra, lur eremu hauek 30-50 urtean behin edo uholde bidez ureztatu egiten dira, inork gogoratzen 1953 eta 1983ko uholdeak? gainera, ibai inguruneari erlazionatutako fauna eta floran oso aberatsak dira lur hauek.

Ibaia noski, bere horretan ekosistema bat dugu eta ekosistema baten elikadura ziklo oro eguzkitik hasten dela uste dugun arren, belardi batean adibidez, eguzki energia belarrak hartzen du, belarra untxiak jaten du eta untxia azeriak jaten du. Ibai batean ez da horrela gertatzen.

Ibai batera iristen den energia ez da belardi batean bezala eguzkitik iristen, izan ere, ibai bere ibilbidearen gehiengoan zuhaitzen itzalpetik joaten baita eta

tatea pizteko baizik, hau ez da La2-eko dokumental bat.

Ibai bat egoera onean inongo aldaketarik gabe mantentzen badugu (egoera naturala), lehen aipaturiko garbiketaren prozesua oso modu efektiboan egiten du, inongo depuradora batek baino hobeko eta merkeago. Botako zaion materia organiko oro 'jan' egingo du, gehiegi botatzen ez badiogu noski! Ibaiek ere bere mugak ditu.

Gure Tolosaldean ordea, tradizioz ibaiak kanalizatu, alboko landaredia moztu eta bere urak zikindu egin ditugu, Oria ibaiak Europako kutsatuenaren titulua lortu arte! Nere gurasoek diotenez, ezin omen zen Oria ibaiaren alboan ogitartekorik jan Oria ibaiak jariatzen zuen aparairerentsi gabe, nork esan!

Ibai bat kanalizatzen bada, uholdeak ekiditen omen dira, baina aldi berean ura azkarrago joaten da kanalean zehar, honela errotzen den materia organikoak (garbitu behar dena) oso denbora gutxi egiten du ibaiaren eta ziztu batean itsasora heltzen da, azken honetan geure zirkuleria guztia hustuz. Tradizioz, gure baserietako zelaia ibaiaren ertzearino iristen dira, ibai alboko zuhaitzak

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Produktu biologikoak ekoizten dituzte Aldabazahar Elkarteak. Gipuzkoako azoketan eta baserrian bertan saltzen dituzte produktuak. Baserri mundua gertutik ezagutu nahi duenarentzako ere zabalik daude baserriko atea.

## Baserriko lana gertu-gertutik

### AGURTZANE BELAUNZARAN

**T**xindoki mendia eta Aralarko ikuspegi ezin hobea ditu parez pare Aldabazahar baserriak, han Aldaban, goi goian. Duela 25 urte sortu zen proiektua, baserri iristeko bideirik ere ez zenean. Gaur egun 7 kide ari dira lanean produktu biologikoak ekoizten. Salva Cuadrado, Juan Luis Irastorza, Lourdes Iraola, Haize Cuadrado, Xabier Almandoz, Edurne Agirre eta Billy Miner dira, hain justu, Aldabazahar Elkarteak kideak. Baserri hurbildu nahi duen orok ere atekialdiak topatuko ditu.

Baserrian bertan, gaztandegia eta okindegia dituzte. Ahuntz, ardi eta behi gazta eta jogurtak ekoizten ditu Lourdes Iraolak. Garai hau fruituena izanik, mermeladak ere egiten ditu.

Gelditzen ez den errotak, gari hazia, galtzuria eta zekale biologikoa ehozten dituen bitartean, Edurne Agirre eta Billy Minerren eskuak ogiaren masari forma ematen diete. Gero egurrezko labean, ogia, madalenak, pastak eta bizkotxoak egiten dituzte. Juan Luis Irastorza arduratzen da ahuntzetaz. Salva Cuadrado eta Haize Cuadrado, aldiz, baratzean eta



Aldabazahar Elkarteak zazpi kideak baserriko aterian. A. BELAUNZARAN

ahuntzekin lan egiten badute ere, baserriko mantenuaren ardura-dunak ere badira. Xabier Almandozena da baratzeko ardura. Nahikoa babarrun bildua dute aurten.

Bakoitzak bere lana badu ere, behar denean esku bat botatzen diote elkarri. «Baratzean babarrunak bildu behar direnean edo baserrian obrak egiten direnean elkarlanean aritzen gara», dio Iraolak. Bazkalondoan, hamaika lagun biltzen da baserriko mahaiaren bueltan.

### Merkatuak eta asteroko poltsa

Aldabazaharren ekoizten diren produktuak Tolosa, Ordizia, Hernani eta Donostiako merkatuetan eskaintzen dituzte. Biolur elkarteak antolatzen dituen azoketan ere izaten direla diote: «Azokek asko nekatzten dute. Goiz guztia bertan pasa, neguan hotzez gainera, eta ez dakigu ziur zenbat salduko den. Orain, Tolosan martxan jarri den saskiaren kontua askoz ere garbia goa da. Kontsumitzaileek astero-

astero gure produktuak erosteko konpromisoa baitute», dio Agirrek. Aldabazahar elkarteak, jogurtak, ogia eta gozogintzako produktu biologikoen saskia eskainiko dute Tolosan.

Aipatu bezala produktu biologiko sorta anitza ekoizten dute baserriak; garai baratzkiak, gazta desberdinak, jogurtak, gazta zahar krema, pastak, sagardoak, etxeko antxumea, arrautzak... Produktu guzti hauek, baserrian bertan ere saltzen dituzte.

### Munduko baserri ekologikoen sarea

Ekoizpenaz gain, WWOOF izeneko mugimenduaren kide dira (*World Wide Opportunities on Organic Farms*) Aldabazaharrekoak.

70. hamarkadan Ingalaterran sortu zen mugimendua da haxe, hiritarrek landa eremuetara hurbiltzeko sortua. Hiritarrek, baserrietako lana gertutik ezagutzeko alegia.

Egun, munduko 50 herrialde-tako granja eta baserri eskaintzen dute aukera hau. Euskal Herrian lau dira. «Aurten hasi gara boluntarioekin lanean. Udan 6 wwoofer etorri dira Espainiatik, Europa iparraldetik eta Kanadatik. Hala eta guztiz ere, edozein etorri daiteke hona, gazta eta ogia egiten ikastera edo baratzeko lanetara», dio Agirrek.

Landa eremua ezagutzeko aukera dute munduko txoko ezberdinetatik etorritakoak. «Gutxienez hilabete baterako etorri behar dira. Ez datoz oportetara, lana egin behar dute hemen. Egunean 5-6 orduko laneguna izaten dute, janaria eta lotarako tokiaren ordainetaz», gaineratu du.

Egun hauetan bi boluntario ari dira baserriko sekretuak ikasten.

## «Esperientzia mundiala da, baserriko bizimodua bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen du»

**AGUSTIN TENA ETA EIDER GUTIERREZ ZIARDEGI** Mundu Mailako Baserri Ekologikoetako boluntarioak

**Nekazaritza** Mundu mailan zabaldu diren goien sarea da 'wwoof'; baserri ekologikoetan ikasteko aukera ematen du.

### AB

Baserri giroa bertatik bertara ezagutu nahi zuten eta [www.wwoof.org](http://www.wwoof.org) izeneko webgunean beren izena eman zuten. Boluntario moduan ari dira Aldabazahar Elkarteak lanean. Baserrian, gazta eta ogia egiten ikasiko dute ohea eta janariaren truke Almeria eta Arrastetik etorritako bi boluntario hauek.

**Non ezagutu zenuten 'wwoof' sarea?**

**Agustin Tena:** Baserri batean lanean aritzeko gogoia nuen eta interneten begira hasi eta Aldabazahar topatu nuen. Tokia gustatu eta hementxe nago, oso gusturagainera.

**Eider Gutierrez:** Frantziaren egon zen lagun batek eman zidan baserri ekologietan lan egiteko aukeren berri. Interneten webgunean sar-



Agustin Tena eta Eider Gutierrez baserriko lanak ikasten ari dira. A. BELAUNZARAN

tu eta 20 euroren truke Mundu Mailako Baserri Ekologikoetako zerrenda jaso nuen. Aukera ezihobe da libre dugu denbora ongi aprobetxatzeko. Bizitzeko beste modu bat ezagutzeko.

**Oporretan lana egiteko hautua egin duzue.**

**A. T.:** Ekonomista nahiz eta urte guztia bulegoan egiten dut lan. Landa eremuak oso gustuko ditut eta nire denbora libre modu ho-

netan aprobetxatzea oso aberasgarria da. Almerian, badut etxetxo bat mendian eta han ogia egin nahi nuke eta oilaskoak hazi. Oporrak ikasteko hartu ditut. Lagun batzuk harriduta hartu zuten nire erabakia. «Oporretan lanera?» galdetzen zidaten. Beste batzuk ez zuten aukera honen berri eta esperientzia probatzeko gogoz geratu dira.

**E. G.:** Irakaslea naiz eta udako

oporren ostean, Hezkuntzako deia zain etxean egon beharrena, baserriera etortzea erabaki dut. Nire lehen esperientzia da baserriaren, kaletarra naiz ni, Arrasaten jaioa, baina Gasteiz dut bizileku. Animaliak oso gustuko ditut eta Aldabazahar baserrian ahuntzekin lan egiteko aukera izan dut eta Lourdesek, gainera, ahuntz gazta egiten ere irakatsi dit. Esperientzia mundiala da hau, zalantzarik gabe,

baserria gertutik ezagutzeko aukera ematen baitu.

### Zergatik Aldabazahar?

**A. T.:** Euskal Herria asko gustatzen zaidalako batikbat, eta hilabeteko oporretan askoz urrunago joaterik ez dudalako. Baserri inguruak zoragarriak dira eta merkatu egunetan Donostia, Tolosa eta Hernani ezagutzeko aukera izan dut. Bazkalorduan denok batera bazkalatzen dugu eta bertako jendea bertatik bertara ezagutzeko aukera ederra da.

**E. G.:** Informazioa eskatu nuenean, munduko azken txokoan hasi nintzen baserri edo granja ekologikoak begiratzen. Pentsa ezinak diren tokiak daude boluntario izateko: Pazifikoko Irlatan, Kanadan, Estatu Batuetan... Azkenean, hotz-itzean pentsatu eta irakasle gisa lan egin behar dudanez, etxetik gertu egotea komeni zait. Euskal Herrian, guztira, 4 baserri ekologiko daude. Tolosa aukeratu nuen Gasteiz baino klima hobexegoa duelakoan, baina Aldabazahar mendi puntan dago eta hotz egiten du hemen!

# Sirimiriren erreportajeetatik leltxuko Web Sessions-era

**Gizartea** » Peio Arruabarrena artista tolosarrak hitzordua jarri du bere herrian: ostegunero 19:00etatik aurrera leltxu tabernan; sarean gertatzen dena jarraitzeko asmoz dabil.

**ASIER IMAZ**

Tolosatik Lanzarotera eta bertatik mundura. Peio Arruabarrena ez da geldirik egotekoa. Argazkilaria tolosarrak artista sena darama barruan eta aurrean jartzen zaion guztiari helzten dio: argazkiak, bideoak, instalazioak, internet, robot erreportaria, telebista eta orain Web Sessions saioa Tolosan.

Lanzaroten ospetsuen atzetik ibili izandu da argazki kamera lan tresnatzat hartuta. *Hola* aldizkariarentzat ere lan egitea tokatu zaio. Ainhoa Arteta, Javier Bardem, Penelope Cruz, Alvarez Cascos... iragana dira jada.

Uharteko hondartzak eta ospetsuak atzean utzi eta sarean barneratu da oraingoan, buru belarri.



Sirimiri robot erreportaria Tolosan. HITZA

Tartean ordea, eskualdean zeresana piztu duen proiektua aurkitzen da: Sirimiri erreportaria.

Peio Arruabarrena munduan zehar ibili da zortzi hilabetetan zehar. Han eta hemengo kulturak ezagutzen ibili da Asian barrenalagun berezi batekin: jostailuzko Lego piezekin osaturiko robotarekin. India, Thailandia, Malasia,

Singapore edo Bali, erreportari berezi honek 300 argazki inguru bildu ditu bidaian zehar. Hauek Tolosako Trianguloan aurkitzen den Gaztelako atean zintzilikatu zi-

tuen instalazio moduan, iragan astean.

Aurrera begira Sirimiri robotak proiektu gehiago dituela azaldu du Peio Arruabarrenak: «Robo Studio izeneko proiektu handiago baten barnean dago Sirimiri. Telebista plato bat osatu nahi dugu antzeko robotekin. Hauen mugimenduak haurrak, gazteak edo ezinduek arduratuko liraterke. Une honetan bide hau zehaztu nahian gabiltza, elkarrizketa batzuk egiten eta abar.»

**Ieltxu tabernan ostegunero**

Tolosarrak interneten ekimen bat jarri zuen martxan duela bi urte, Lanzaroten bizi zela: Web Sessions. Orain, Tolosatik emango dio jarraipena. Ieltxu tabernan jarri du hitzordua Arruabarrenak ostegunero, 19:00etatik aurrera.

«Interneteko berrikuntzak erakutsi, ikasi eta partekatze prest dagoen jendearen topagunean da Web Sessions. Musikiariak, argazkilariak, errealizatzaileak, DJak... elkartzen gara, sarean gertatzen denaren inguruan mintzatzeko». Horrela laburbiltzen du tolosarrak Ieltxu tabernan abian jarri duen egitasmoa.

Web Sessions zer den azaltzeaz gain, nahi duen oro ere bertara gonbidatu du artistak.

Uhartetik mundura eta mundutik sarera. Tartean ordea, proiektu etengabeak. Ikusitakoak ikusita, Peio Arruabarrena tolosarrak zeresana ematen jarraituko duela gauza jakina da.



Sirimiri Kuala Lumpurren, atzean Petronas dorreak dituela. HITZA

**ZURE ABONUA, GURE KEMENA**

**LAGUN ARO GBC**  
SAR ZAITEZ TALDEAN

LAGUN ARO SAN SEBASTIAN (PIZKA BALAJETI)

LAGUN ARO GIPURKOA



Haurrek mendian bildutako perretxikoak ikusten jende asko geratu zen Trianguloan. E.MAIZ



Janari laguntzeko, sagardoa txotxetik edan zuten. E.MAIZ



Perretxikoez egindako era askotako pintxoak ikusi eta dastatzeko aukera izan zen. E.MAIZ



Trianguloan bertan prestatu zituzten. E.MAIZ



Jendeak pintxo ezberdinak jateko aukerarik ez zuen galdu. E.MAIZ

## Perretxikoen usainaren atzetik

**Tolosa** » Kasino Elkartek antolatutako Mikologia Jardunaldiak atzo izan zuen azken eguna. Jende ugari izan zen Trianguloan, perretxikoen bueltan.

### ENERITZ MAIZ

Mikologia Jardunaldiak atzokoa izan zuen azken eguna. Kasino elkarteak antolatuta, astean zehar ekitaldi ezberdinak izan dira.

Tolosan oso ohikoak izan ohi ziren mikologia erakusketa eta lehiaketak. Urte askoan desageruta egon ostean, duela bi urte Al-

pino Uzturre Elkartearen eskutik antzerako ekimenaz gozatzeko aukera izan zen. Aurten, Kasino elkarteak hartu du lekukoa bere 125. urteurrenean. Baina, elkartearen nahia, jardunaldi hauek jarraipena izatea da.

Hitzaldi ezberdinetarako joan direnek, perretxiko ezberdinak

ezagutu eta euren ezaugarriak ikasteko aukera izan dute.

### Ikasleek bildutakoak ikusgai

Ostiralean, ikastetxe ezberdinetako ikasleak mendira joan eta era guztietako perretxikoak bildu zituzten. Ekimen honetan, Tolosako Laskorain, Hirukide eta Orixek, Anoetako ikastolak eta Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak parte hartu zuten.

Jarraian, Aranzadi zientzia Elkartekoek izan zuten lana. Ikasleek bildutako guztia sailkatu behar

izan zuten, atzo Triangulo plazan erakusgai jarri ahal izateko. Perretxiko bakoitzak berari zegokion informazioa eskaintzen zuen.

Perretxikoak jan aurretik, ondo ezagutzea komeni izaten da. Guztiak ez baitira jangarri. Beraz, behin mikologiaz eta perretxiko ezberdinez informazioa jasota, dastatzeko unea ere izan zuten.

### Dastatzeko aukera

Triangulo plazan elkartu ziren jantetxe ezberdinetako sukaldariak. Guztiek perretxikoak prestatu zi-

tuzten, baina jantetxe bakoitzak bere ukitua eman zien pintxoek.

Bertaratutakoek, euro bateko txartelarekin pintxo bat erosteko aukera izan zuten. Jende ugari elkartu zen perretxikoen usainera. Eta era ezberdinetako pintxoak dastatu ahal izateko, ilara luzeak izan ziren.

Jan bakarrik ez, txotxetik sagardoa edateko aukera ere izan zuten. Hemendik aurrera, perretxikoak leen nahia mendira joan eta jangarriak diren perretxikoak biltzeko zortea izatea izango da.



## Udalbiltzako auzipetuei babesa

**POLITIKA** ● Plazak bete! Udalbiltza aske! lelopean Bai Udalbiltzari Sareak elkarretaratzeak deitu zituen atzo Euskal Herriko hainbat herritan. Tolosaldeari dagokionean, Tolo-

san eta Anoetan egin zituzten, besteak beste, eta Adunan bihar egingo dute 19:30ean plazan. Modu honetan adierazi nahi diete elkartasuna Udalbiltzako auzipetuei. E.M.



## Tor eta Eriz magoek liluratuta

**TOLOSA** ● Tolosa & Co merkatarien elkarteak antolatuta Tor eta Eriz magoek ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten atzokoan gaztetxoek euren gurasoekin batera. Bi emanaldi eskai-

ni zituzten, biak Zerkausian, eta oso jendetsuak izan ziren. Ekitaldi hauekin jendea herrian bertan geratzea bultzatu nahi dute dendariak. I.T.

## 65 parte-hartzaile izan ditu Hernialdeko Rolleski Igoerak

**Tolosa** ● Iñigo Aldaz eta Maialen Lopez eta Oier Goñi eta Leire Garbeazabal izan dira aurtengo irabazleak.

### ERREDAKZIOA

Hamargarren urtez antolatu du Alpino Uzturre elkarteak Hernialdeko Rolleski Igoera. 65 parte-hartzaile izan ditu aurtengoan, eta antolatzaileak gustura azaldu dira, «espero bezala, giro onean» burutu delako.

Ohi bezala, bi eratan burutu zuten atzokoan proba. Skating era-koak Belate auzotik irten ziren, eta 4 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten Hernialderaino. Era

honetan, Iñigo Aldaz Erronkari-koa izan zen gizezkoetan lehena 15 minutu eta 24 segundoko denborarekin; emakumezkoetan, berriz, Irungo Maialen Lopez gailendu zen, 19 minutu eta segundo bateko denbora eginez. Gaztetxo-ean mailan, Uharteko Henar Etxeberria izan zen lehena.

Era klasikoan, hau da, Hernialderako bidegurutzetik abiatu zirenek 3,2 kilometroko bidea osatu behar zuten. Kasu honetan, Uharteko Oier Goñi iritsi zen Hernialdeko helmugara lehena, 14 minutu eta 5 segundoko denborarekin; emakumezkoetan Leire Garbeazabal donostiarra izan zen azkarrena 16 minutu eta 22 segundo eginez. Gaztetxo-ean mailan, Uharteko Hector Angulo izan zen lehe-

na mutiletan, eta nesketan, berriz, Irati Izagirre tolosarra iritsi zen azkarrena.

### Bertakoak nahiz kanpokoak

Alpinok antolaturiko proba Rolleski Ligaren barruan sartzen da. Guztira sei proba izaten dira herri desberdinetan banatuak, eta datorren astean izango da azkena. Hain zuzen ere, hori dela-eta Euskal Herriko nahiz Euskal Herriko kanpoko herri desberdinetako parte-hartzaileak izan ohi ditu Tolosako probak. Gipuzkoatik Tolosa, Errenteria, Irun, Donostia edota Eibaretik etorri da jendea aurretan. Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Madrid edota Kantabriatik etorritako parte-hartzaileak ere izan ditu Rolleski Igoerak.



Skating modalitatekoak Hernialderako bidegurutzean sartzen. Ezkerrean, klasiko era-koak, zain. I.T.

## Laburrak

### Azokan parte hartzeko izena ematea zabalik

**AMEZKETA** ● Amezetan azaroaren 14an, igandean, azoka egingo dute herrian. Azokak aurrekoan izan zuen harrera kontuan izanda, batzordeko kideek, aurten ere errepikatuko egingo dute. Azokan postu bat jarri parte nahi izanez gero, alde zuzen aurretik izena eman beharko da. Horretarako, udaletxera joan eta apuntatu edota batzordeko kideren bati esan beharko zaiola adierazi dute antolatzaileak.

### Lodosara irteera eta ikastaroak egiteko aukera

**TOLOSA** ● Amaroako Beti Gazteak jubilatutako elkarteak Lodosara (Nafarroa) irteera antolatu du hilaren 30rako. 08:45ean aterako dira Zumardi Txikitik eta 09:00etan Amarozt auzotik. Bestetik, auzoan joskintza eta eskulan ikastaroak ere antolatu nahi dituzte. Hauek 40 ordukoak izango dira. Informazioa gehiago eskuratu nahi duenak, 676 241 960 eta 635 757 786 telefono zenbakietan izango du.

**MUNDUKO SUKALDARITZA** →  
EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA  
MAROKO • BREITANIA  
INDIA • MEXIKO • VIETNAM  
ARGENTINA • LIBANO  
ITALIA • TXINA

**berriekin eskaintza berezia**

EGIN ESKAERA  
urriaren 29a baino lehen  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

Laguntzailea: FAGOR

AUKERA BAZALDIZKI EUSKARAZKO berria

